

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 2015eko Kulturaren Vianako Printzea Sariaren deialdia egin du

*Hautagaitzak aurkezteko epea apirilaren 16an amaituko da*

Martes, 17 de febrero de 2015

Nafarroako Gobernuak [2015eko Kulturaren Vianako Printzea Sariaren](#) deialdia egin du. Haren helburua, kulturaren munduan garrantzitsuak diren pertsona edo erakundeen ibilbidea saritzea da, eta horren barnean sartzen da, alde batetik, arte plastiko, musika edo literaturan egindako sorkuntza-jarduera, eta bestetik, zientzia, teknika eta ikerketan egindako lana. 25.000 euroko saria da, eta hautagaitzak apirilaren 16a baino lehen aurkeztu ahalko dira.



2014ko Kulturaren Vianako Printzea Sariaren banaketa-ekitaldia.

Nafarroako Kultura Kontseiluko kideek aurkeztu ahal izango dituzte hautagaitzak, edozein herrialdetan legez eraturako erakunde publiko edo entitateek, edo antolakuntzak gonbidatutako pertsona famatuek.

Hautagaitzekin batera, honako dokumentazio hau erantsi beharko da: proposatutako entitate do pertsonaren datuen egiaztagiria, azalpen-memoria, babes-gutunak (borondatezko izaeraz), edo aipatutako merezimenduak babesten eta egiaztatzen lagunduko duten beste edozein dokumentazio osagarri.

Sariaren epaimahaia Nafarroako Kultura Kontseiluko kideek osatuko dute, eta haiek hautagaitzak aztertu eta Nafarroarekin duten lotura berezia baloratuko dute, haiek duten merezimenduz gain.

Kulturaren Vianako Printzea Saria martxoaren 15eko 56/1990 Foru Dekretuaren bidez sortu zen.

Honako hauek izan dira orain arteko sarituak:

- 1990: José Goñi Gaztambide (historialaria)
- 1991: Eugenio Asensio Barbarin (filologoa)
- 1992: Iruñeko Orfeoia
- 1993: Rafael Moneo (arkitektoa)
- 1994: Francisco Ynduráin (filologoa)
- 1995: Julio Caro Baroja (historialaria)

- 1996: Pablo Antoñana Chasco (idazlea)
- 1997: Pedro Miguel Echenique (fisikaria)
- 1998: Montxo Armendáriz (zinemagilea)
- 1999: Álvaro d'Ors (legelaria)
- 2000: Concepción García Gaínza (historialaria)
- 2001: Miguel Sánchez-Ostiz (idazlea)
- 2002: María Bayo (sopranoa)
- 2003: Juan José Aquerreta Maestu (pintorea)
- 2004: Fernando Redón (arkitektoa)
- 2005: Javier Manterola Armisén (ingeniari zibila)
- 2006: Javier Tejada Palacios (fisikaria)
- 2007: Pedro Iturralde Ochoa (jazz-musikaria)
- 2008: Alfredo Landa Areta (aktorea)
- 2009: Agustín González Acilu (musikari eta konpositorea)
- 2010: Jürgen Untermann (hizkuntzalaria, filologoa eta epigrafialaria)
- 2011: Faustino Menéndez Pidal de Navascués (heraldista)
- 2012: Antonio López García (pintorea)
- 2013: Daniel Innerarity Grau (filosofoa)
- 2014: Tarsicio de Azcona (historialaria)